



Kontrol sistema Kaxko osoan martxan, gaurtik.

Kotxeak eta ibilgailuak Kaxkora sartu ahal izateko, kontrol sistema jarri zuen Udalak orain dela urtebete, baina oso-osorik martxan gaurtik aurrera izango da, Zinkoeneatik Balantxarako sarrera falta baitzen jartzeko. Aldaketak izango dira gaurtik aurrera Atzieta kalean ere. Ordubeterako aparkatzen duenak,

20:00etatik aurrera irteera itxia aurkituko du, hemendik aurrera (lehen irekia izaten zen, eta jendeak ez zuen 20:00etarako kotxea ateratzen). Balantxako aldapa hasieran garajea duten gehienek eskatu dute txartela Udalean, baina oraindik badira batzuk eskaera egin ez dutenak. Horiek lehenbailehen joan behar dute Udalera: 09-00-13:00 edo 15:00-20:00. ||

Emakumeen aurkako biolentziaren kontrako eguna gaur

Kontzentrazioa eta zine emanaldia

Kontzentrazioa 19:30etan Plaza Berrin. 'En el tiempo de las mariposas' 20:15etan Gaztetxean.

EMAKUMEEN aurkako biolentzia gaitzesteko eguna da gaur, nazioartean, eta Hernanin bi ekitaldi antolatu dituzte, arratsalderako. Kontzentrazioa izango da, 19:30etan Plaza

Berrin, Berdintasun Kontseiluak, Txoko Feministak eta Hernaniko Udalak deituta.

Pelikula botako dute, jarraian, Kontraktantza Gaztetxean, 20:15etatik aurrera: *En el*

tiempo de las mariposas pelikula botako dute. Azaroaren 25 batean, Trujillo diktadorearen garaian, Errepublikan Dominikarkean, Mirabal ahizpak hil zituzten, eta horregatik da

egun seinalatua azaroaren 25a, nazioartean. Pelikularen ondoren, txokolatada egingo dute.

Bihar, gazteei aholkuak emateko zerbitzua eta zine foruma izango dira, Biterin. ||

❖ UDALA

Azaroak 25eko adierazpena, eta Marokok Saharan egindako eraso gaur Plenoan

Zortzi puntu eztabaidatuko dituzte gaur Plenoan, 18:00etatik aurrera. Gaur emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna da, eta egun horretako manifestua aurkeztuko dute. Soldadu marokoa Saharan egindako eraso ere aztertuko dute gaurko Plenoan. Horrez gain, azken ebazpenen berri emango dute, udalarenak diren edifizioak garbitzeko kontratua luzatzeari buruz ariko dira... ||

Gobernu Batzordean onartu egin zen, dirulaguntza ematea, garapen bidean dauden herriei

Garapen bidean dauden herrialdeetan proiektu asko daude martxan, eta Hernaniko Udalak urtero ematen die dirulaguntza zenbait proiekturi. Aurten 225.000 euro emango zaizkie 18 proiekturi. Hori erabaki zuen Gobernu Batzordeak, asteartean. Galarreta frontoiaren ondoren parkina egiten asteko baime-na ere onartu zen. /7

❖ HERNANI'N MUSIK

Alasdair Fraser eta Natalie Haas, interneten

Sarrera guztiak bukatu dira gaurko kontzerturako, eta antolatzaileek erabaki dute kontzertua internetez ere ematea. /2

TRIPA BETE NAHI?

sabemos castellano

taberna tripontzi

PINTXOKA, BAZIOKA,
ENTSALADA,
PLATER, KONBINATUZ
ZATOK DASTATZERA!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI • 943 555 724

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

IRRIGOENEA OKINDEGIA

EGUNEROKO OGI BEROA

GAZTELOKO PASTELAK eta
TARTAK ENKARGUZ
OPIL ETA PASTA BIKAINAK

BARIETATE HAUNDIA
INTEGRALETAN:

OJALDREZKO PALMERAK
KURASAN ZEREALDUNA
MADALENAK
OGI INTEGRAL HAZIDUNA

EGUNERO TXARTEL BAT LORTU EZAZU
ABENDUAREN 22an ZOZKETATUKO DUGUN
XERTU BATENTZAKO.

sulabe

Lizeaga I (Portalez kanpo) telf. 943 33 17 25
HERNANI

Alasdair Fraser eta Natalie Haasek Biteri bete jende izango dute gaur

'In the Moment' lana eskainiko dute gaur Fraserrek eta Haasek, biolina eta txeloa, erritmo eskoziarrera. 19:45etan Biterin izango da, eta sarrerak agortu egin dira.

ESKOZIAKO musikak bete-ko du gaur Biteri, Alasdair Fraser eta Natalie Haasen eskutik. Mundu mailan izen haundikoak dira bi artista horiek, eta jira bat egiten ari dira Galizian eta Euskal Herrian. Gaur Hernanin joko dute, oso gutxitan izaten den aukera horietako bat, beraz, sarrera hartzea lortu dute-entzat. Izan ere, lehenengo egunean saldu ziren sarrera guztiak, eta Biteriko 171 eserlekuak urri xamar geratu dira, beste behin.

Biolina eta txeloa, melodia eta erritmoa
Alasdair Fraserren biolin hotsa Eskoziako ikur bihurtu da, aspalditik, eta Natalie Haas lagun hartuta, herri musika bizi-bizi bat egin dute. Musika zelta bere gordinean; txeloaren erritmoan biolinaren melodia.

In the Moment lana ekarri-ko dute gaur, biek egin duten laugarrena, zuzeneko emanaldietarako sortua.

Musika eskolako 15 ikasle ere tabladura igoko dira bi

● **Interneten ere botako dute kontzertua, joaterik ez dutenentzat. Helbidea: www.facebook.com/profile.php?id=100001697046857&v=wall**

izen haundi horiekin jotzera, eta extra gehiago ere izango dira: Juan Arriola, Arkaitz Miner... Fraserrek euskal musikariekin egindako lan batzuk ere joko ditu Biterin.

Kontzertua, interneten
Udal Musika Eskolak interneten botako du kontzertua, Facebooken: www.facebook.com/profile.php?id=100001697046857&v=wall. Kontzertura joateko modurik ez duenak espetakulu haundi hau zuzenean segitzeko modua egin dute horrela, antolatzaileek.

2 sarrera, Joxe Elizondori
Bi sarrera zozketatu dituzte arduradunek, eta irabazlea honakoa izan da: Joxe Elizondo Arruti, *Niko*. ■

🔗 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

6 emakume erailak Euskal Herrian, normala

Silueta bi marraztu ziren «krimen pasionalak» gertatu tokian: etxeko pasiloko lurrean bat, beste baso bakarti batean. Biolentzia seinaleak daude. Bi emakume gehiago erailak Euskal Herrian. Zer gertatu da? Auzokideek, gurasoek, lagunak, ikaskide eta lankideek ez dute ezer ulertzen. Nola da posible? «Mikel ez da emakumeak erasotzen dituen psikopata horietako bat, beti izan da oso pertsona ona». Nola izan liteke? Inork ez du ezer ulertzen... «Joseba oso pertsona normala da» - diote ingurukoek.

Normalak dira, bai... hainbat gauza normalizat hartzen diren jendarrean, izan ere, gurean gaur egun ere normala, normala da...

- ...jaio baino lehenago zein kolore gustatuko zaigun jakitea: arroxa neskontzako da soilik kolore hau ez baita arrakasta, botere eta indarrarekin inolaz ere lotzen.

- ...Maiteri, berak eskatu gabe, lehen hilabeteetatik belarritakoak jartzea, eta ibiltzen ikasten hasten denean, korrika egiteko erabat deserosoak diren jantziak eta zapatak jartzea.

- ...kontakuz dizkiguten ipuin gehienetako protagonistak mutilak izatea.

- ...ikasliburuetan agertzen diren lorpenak gizezko zientzialari, politikari, idazleek bakarrik izatea, eta ez azaltzea inon zergatik ez diren agertzen emakumeen ekarpenak, zeintzuk ziren emakumeek ekarpenak egiteko zituzten aukerak.

- ...laneko elkarriketetan haurdun geratzeko asmoa duzun galdetzea, haurdun bazaude kaleratzea, lan beragatik gizon batek baino gutxiago kobratzea, emakumeek egindako lanaren bidez lortutako aberastasuna (etxeko lanak, zaintza) Barne Produktu Gordinaren 3/4 izatea eta hori inon ez agertzea, baloratzea, ordaintzea, saritzea.

- ...komunikabideetan emakumea behin eta berriz objektu sexual gisa agertzea.

- ...komisaldegi eta kartzelatan emakumeak biluztuak, ikutuak eta edozer gauzarekin penetratuak izatea.

- ...emakume batek EZ esaten duenean BAI esan nahi duela pentsatzea.

- ...instituzioek emakume eta gizonen arteko berdintasuna aurrekontu gabe lantzea.

- ...emakume batek tratatu txarrak salatu eta tratatu txarrak egin dituen gizona kalean egotea inork kontrolatuko ez duen urrutze agindu batekin.

Emakumeak gutxietsi eta balio matxistak etengabe bultzatzen dituen sistema batean gauza hauek gertatzea erabat normala da eta horregatik normala da aurtzen Euskal Herrian 6 emakume erailak izatea, hainbatek tratatu txarrak salatu izana, tratatu txarrak beren etxeko isiltasunean pairatzen dituzten emakumeak egotea, neskak kalean erasotzeko izatea. Guk sumisio eta aginte rola alde batera utzi eta parekidetasunean oinarritutako harremanak nahi ditugu. Ez dugu gure aurkako indarkeri gehiago onartuko ez kalean, ez etxean, ez lanean, ez inon.

Nazkatuak gaude, normala

da ezta? Horregatik egiten dugu gure burua defendatzeko hautua, autodefentsa feminista eta feminismoa aldarrikatzeko hautua. Eta zuk?

Maialen Apezetxea Lujanbio Nahia Eguskizaga Bilbao Garazi Garmendia Barrenetxea Garazi Jauregi Karrera Ana Revuelta Andres Hernaniko Txoko Feministako kideak

Soldatak eta elkartasuna

Gehiegitan zuzendu behar izan dizkiogu gobernu taldeak Jose Ramon Chica PSEko zinegotziari soldaten inguruan zabalduko gezurrak eta udal eztabaidan kontuhartzaileak datuak zuzentzean, nahi gabe okerra egin balu bezala erantzuten du, baina behin eta berriz datu oker berberak baliatzen da gauzak itsuraldatzeko. Horixe egin du azkenaldian prentsan herritar batekin izandako eztabaidan, eta datu oker asko erabili ditu tartean.

Pertsonal sailaren eta kontuhartzailearen datuen arabera, 2007an alkateak 60.740 euroko soldata zuen eta gobernu aldatzarekin 35.210era jaitsi zen; Joxean Rekondok 29.558 kobratu zituen eta Marian Beitialarrangoitiak 20.442, beraz 2007an Udalak 10.000 eurotik gora aurreztu zituen soilik alkatearen soldatan. 2008an alkateak 36.869 kobratu zituen (23.871 gutxiago), 2009an berriz 37.753 (22.987 gutxiago), eta 2010ean 38.433 kobratuko ditu (22.307

gutxiago). Horien batura egitea nahikoa da aurrezpena 79.907 eurokoa izan dela jakiteko. J. R. Chicak berriz 2007an hilero Marian Beitialarrangoitiak baino 1.400 euro gehiago kobratzen zituen.

Horrez gain J. R. Chicak aipatu izan du alkatearen soldatekin aurreztua aholkulariak ordaintzeko erabili izan dela, eta hau ere ez da zuzena. Kontuhartzaileak emandako kopuruen arabera zinegotzi, alkate eta aholkularien gastua 2006an 428.721 eurokoa izan zen, 2007an 349.950ekoa, 2008an 306.738koa eta 2009an 324.414koa. Horri lotuz gero 2010ean aholkulari bat gutxiago duela gobernu taldeak, erraz ondorioztatuko du edozeinek gastua gehiago mugatuko dela.

Hau guztia esanda erantzun nahi nioke PSEko ordezkariari, datu okerrekin ez doala oso urruti erraz konproba baititzake edozein hernaniarrek. Bestetik ea noiz egiten duen proposamen bat berak jasotzen duena murrizteko, gobernu talde honek egin ohi duen moduan, nahi badu irudi hutsagatik, baina egin dezala, orain beste batzuk egin nahian dabilzan moduan Madrilgo dekretuaren aurrean beraien gehiegikeriak arintzeko edo. Eta azkenik esan nahi nioke elkartasuna ez zaiela besteei eskatu behar, norberak erakutsi baizik, eta bera nire egoera berean dagoenez, ea noiz proposatzen duen jasotzen ditugun asistentzia dietak kentzea, nik alde bozkatuko dut.

J. Carlos Plazaola Burugain, Hernaniko Udaleko Ogasun zinegotzia

❖ URTEKARIA

2010 urtekaria abenduan aurkeztuko du Udalak

Abenduaren 17an aurkeztuko du Udalak 2010eko urtekaria, 19:30etan Areto Nagusian. ■

❖ AZOKA

Bigarren eskuko azoka, larunbatean

San Marko Mankomunitateak antolatuta, bigarren eskuko azoka izango da larunbatean, Atsegindegian. 10:00etatik aurrera izango da, goizez. ■

❖ KONTZERTUA

Maialen Lujanbio eta Judith Montero, gaur Artelekun

Disko-liburu berria aurkeztuko dute gaur, Artelekun, Maialen Lujanbiok, Judith Monterok eta Xabier Erkiziak. Ornitrorrikus izeneko CDa aurkeztuko dute, 19:00etatik aurrera, eta entzunaldi komentatua izango da. CDa salgai jarria dago zenbait lekutan, eta Hernanin eskuratua nahi duenak, Doberan edo Kronikan dauka (Larramendi kalea 11), 15 euroan; Dobe-rako bazkideek 12 euroan. ■

❖ UR LUDOTEKA

Ur jolasak igandean

Ur festa, edo ur-ludoteka antolatu dute igandean kiroldegiko igerilekuetan. Uretan jostatzen ibiltzeko aukera izango dute txikienek, 10:30etatik 12:30etara. ■

❖ AMHER

Amherrek langilea behar du, jornada erdiz lan egiteko

Hernaniko AMHER talde multikulturalak langilea behar du, jornada erdiko lanerako. Inmigrazioaren gaian eskarmen-tua behar du, eta gizarte gaiekin lotura. Etorkinei aholkuak eman beharko dizkie, dinamizazio lana egin, eta elkartearen plana aurrera eramaten lagundu. Bulego eta idazkaritza lanak ere eskatuko dira. Ordu-tegia: 09:00etatik 13:00etara. Curriculum aurkezteko azken eguna, azaroak 30. Latsunbe auzoa, 42 (Transparcar). ■


Ikasleen Txokoa

Inmakulada Ikastetxea



Waterpoloia Hernanin / II

DANI, NAIKARI, SANDRA, AINHOA, IKER, DENIS



Servando Rivas - Mailu jaurtitzaila
«Jaten dudana zaindu behar dut,
gorputza ondo mantendu behar da eta» / III

DANI, ALBA, IKER, LAURA ETA SANDRA

Droga eta alkohola /IV

AINHOA, ALBA, LAURA, NAIKARI, SANDRA,
DENIS, JUANMA, NAOMI



Zorionak Iosune! /IV



Egileen argazkia /IV

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

INMAKULADA IKASTETXEA

Hernaniko taldeak, azken urte hauetan, benetako lan gogorra egiten ari da gure herria postu altuenetara eramateko. Espainiako taldeak Olinpiar Jokoetan lortutako

bi dominek, bat urrezkoa eta bestea zilarrezkoa, ospe handia ekarri zion kirola honi, dudarik gabe. Izan ere, sortutako arrakasta gure herrira ere heldu da.


Waterpoloia Hernanin

Hernaniko gazteen taldea, 16-17 urte bitarteko lagunek osatuta, ez da atzean geratzen, alabaina, ez horixe! Lan handia egin omen dute eta asko hobetu dutela adierazi digute; «maila altua hartzen ari dira» dio entrenatzaileak. Jada partida asko irabazi dute eta gehiago irabaztea espero dute taldeko kide guztiek.

Baina... zer da waterpoloia, nola jokatzen da?

Waterpoloia igerileku batean jokatzen da. Guztira 13 jokalaririk osatzen dute talde bakoitza, baina horietako 7-k besterik ez dute partiduan parte hartzen; besteak aulkian gertatzen dira, erreserba gisa, partiduen zehar ordezkapen ugari egiten baitira.

Partiduak lau zatitan banatzen dira, zortzi minutukoak. Denbora baloia jokoan dagoenean bakarrik jartzen da martxan; falta bat gertatuz gero, eten egiten da, jokozainak berriro sakea eman arte. Bestalde, jokalariek erresistentzia handia behar izaten dute, joko bizi eta azkarra delako.



Hernaniko waterpoloko jubenil taldea.

Nola antolatzen dira taldeko jokalariek waterpoloan?

Hasteko, *boia* delakoa daukagu, baloia indartsuen botatzen duen jokalaria da. Atetik bizpahiru metrora egoten da, erdialdean, eta bere lana jokaldiak amaitzea eta joko banatzea izaten da. Denbora gehiena ateari bizkarra emanda egoten da.

Atetik bost bat metrora *alboetakoak* jartzen dira. Jokalari azkarrak eta teknikoak dira eta mugikortasuna eta sakontasuna ematen diote jokoari. Hauekin batera *hegalekoak*

dauzkagu, atearen alboetan kokatuak, baloia *boiari* pasatzen diotenak.

Azkenik, *zentrala* dago, atetik urrunen jarritako eta paseak oso ongi menperatzen dituen jokalaria; beste taldeko *boia* geldiaraztea dauka helburu.

Jokalari guztiek kontuan hartu behar dute beti, baloia esku bakar batekin ahal dutela bota: baloia bi eskuekin hartzekotan, falta izango da.

Nolakoak izaten dira taldeak egiten dituen

entrenamenduak?

Lehenik eta behin, beroketak eta luzapenak egiten dira; gero uretan sartu igeri egitera, serien bidez erresistentzia eta bizkortasuna lortzeko. Honen ondoren, teknika eta estrategia desberdinak lantzen dira, partidu txikiak eginez, denbora gutxikoak, taldea zer moduz dihoan ikusteko. Amaitzeko, entrenatzaileak zenbait aholku ematen dizkie jokalariei, joko hobea dezaten eta partiduan faltak egin ez dituzaten gogorarazteko.

43

zenbakia

Miguel Angel Redondo - Entrenatzailea

«Berehala harrapatzen zaituen kirola da waterpoloia»



Noiztik zara waterpoloko entrenatzailea?

23 urterekin hasi nintzen nesken taldea entrenatzen. Lehen igeriketa ikastaroak ematen nituen eta igeriketako taldeak ere entrenatzen nituen.

Zergatik gustatzen zaizu kirol hau? Zer eskaintzen dizu?

Berehala harrapatzen zaituen kirola da waterpoloia. Beti egon

naiz lotuta uretako kirolarekin, baina waterpoloak onena eskaintzen dizu: lan fisikoa, zeure burua gainditzeko nahia eta talde lana, besteak beste. Gauza asko dira eta denak onuragarriak.

Nola ikusten duzu zure taldea? Etorrizuna al dauka?

Talde gaztea da, gogo askorekin. Waterpoloia oso gogorra

da eta oso ondo jasaten dute lanketa. Bestalde, etorkizun ona izatea ala ez, ez da garrantzitsua, pertsonak osatzea baizik, ez lehiakideak.

EGILEAK

Dani, Naikari, Sandra, Ainhoa, Iker, Denis (DBH 4)


euskara
ari du

SERVANDO RIVAS - MAILU JAURTITZAILEA

«Jaten dudana zaindu behar dut,
gorputza ondo mantendu behar da eta»

Mailu jaurtiketa atletismoko proba bat da. Mailua, metalezko bola bat, altzairuzko kable batekin loturik dago, eta pisu desberdinetako bola hori ahalik eta urrunen bidaltzea dauka helburu jaurtitzaileak.

Kirol hau 1900 urtean hasi zen praktikatzen gizonezkoen kategorian eta 2000 urtean emakumezkoenean. Urte asko izan arren, atletismoko modalitate hau ez da besteak bezain ezaguna. Alabaina, badaude gazteak ere kirol tekniko hau probatzera animatzen direnak. Servando Rivas, hernaniarra eta Inmakulada ikastetxean ikasitakoa, adibide bikaina da, hain zuzen ere.



Servando Rivas, mailu-jaurtilaria.

Zergatik gustatzen zaizu mailu-jaurtiketa?

Gorputza eta fisikoa asko lantzen duen kirola delako. Kanpotik ikusita, behar bada, jaurtiketa erraza dirudi, baina teknika asko eskatzen du. Indarra izatea ez da nahikoa, bultzada ondo aprobetxatu behar da, jaurtiketa ahalik eta luzean izan dadin. Nahitaezkoa da teknika menperatzea.

Noiztik ar zara kirol hau egiten?

Sei urte daramatzat mailu-jaurtiketan eta oso kontentua nago.

Zerk erakarri zizun atletismoko modalitate hau egitera?

Egia esan beste kirol batzuk ikusita baneuzkan ere, ez zidaten inoiz interes berezirik sortu. Mailu jaurtiketa, aldiz, oso interesgarria iruditu zitzaidan hasierahasieratik.

Zenbat txapelketa irabazi dituzu?

Gipuzkoako 6 txapelketa, Euskadiko 6 txapelketa eta Espainiako 6 txapelketa. Kanpora ere joan naiz; izan ere, munduko txapelketan

parte hartu dut eta 16garrena geratu naiz.

Nola egiten duzu lan?

Egunero entrenatzen dut. Lehenengo beroketak eta ondoren ariketa desberdinak egiten ditut, jiroak lantzeko, besoen eta gorputzaren postura zuzentzeko eta abar. Bestalde, jaten dudana zaindu behar dut, gorputza ondo mantendu behar da-eta.

Zenbat ordu entrenatzen duzu?

Astero lau egun eta txapelketa bat daukadanean egu-

nero, ostiraletan izan ezik.

Zergatik aukeratu zenuen mailu jaurtiketa eta ez beste kirol bat?

Munduko probarik zailena delako, nire ustez. Indarra, trebetasuna eta teknika haundia eskatzen du.

Pentsatu al duzu inoiz munduko onena izan zaitezkeela?

Ez, ze maila haundiko jaurtitzaileak daude, bai Espainian, eta bai atzerrian ere.

Zuk bakarrik entrenatzen al**duzu?**

Bai, normalean nik bakarrik entrenatzen dut egunero.

Norbaitek animatu al zintuen kirola egitera?

Ez. Izan ere, etxean mailu-jaurtiketa txorakeria zela esan ohi zidaten.

EGILEAK

Dani, Alba, Iker, Laura eta Sandra (DBH 4)

Droga eta alkohola

Zer dira drogak? Bada sustantzia kimikoak, natural zein sintetikoak, nerbio-sistema zentralari eragiten diotenak, eta hartzen hasiz gero mendekotasuna sortzen dutenak.

Hainbat motatakoak daude: marihuana, koka, LSD, speed, kosmos, heroina, tabakoa eta alkohola besteak beste. Orokorrean, eragindako mendekotasunaren arabera sailkatzen dira: droga bigunak, mendekotasun psikikoa eragiten dutenak, eta droga gogorrak, mendekotasun fisiko eta psikikoa sortzen dutenak.

Zergatik hasi

Gazte asko drogak kontsu-

mitzen hasten dira, euren arazoetatik ihes egiteko, lotsa alde batera uzteko edota «ondo» pasatzeko. Askotariko arrazoiek bultzatzen dituzte kontsumora, askotariko ondorioak lortzekotan: euforia, lasaitasuna, zoriona, atsegina, bizkortasuna. Guztiak helburu jakin baten bila, dagokion arrisku larria jakin ezean.

Batuetan lagun taldetik kanpora geratzeko beldurrak (berak izan ezik beste guztiak erretzen badute, esaterako) bultzatzen du gaztea droga bat probatzera. Besteetan, zirrara gehiago izateko nahiak edo sustantzia berriak dastatzeko jakin-minak.

Drogen kontsumoak arazo

fisikoak sortzen ditu: bihotze-koak, minbizia, buruko gora-beherak. Alabaina, arazo psikologikoak arriskutsuenak dira, pertsonaren nortasuna aldatzen edo kentzen dutelako. Horren ondorioz, familiarikiko (gurasoekiko bereziki) eta lagunekiko harremanak gero eta okerragoak dira; ikasketetan ere errendimendua jaisten da eta egoera pertsonala jasanezinezkoa egiten da.

Alkohola

Drogarik ohikoenetako bat da alkohola. Gazte asko 12-13 urterekin hasten dira edaten eta maiz, 14 urterekin ohikoa dute edatea. Alde batetik, alkohola kontsumitzea oso barne-

ratuta daukagu gure kulturaren, festak ospatzeko, alegia, eta gazteek helduak imitatzen dituzte. Bestetik, beste droga batzuen alde, gazte askok droga «biguna» deritzote alkoholari, hasiera batean eragindako kalteak hain begi-bistakoak ez direlako.

Dendetan ere, gazteei alkohola saltzea debekatuta egon arren, beti erosteko modua bilatzen dute. Beraz, beste droga motekin konparatuz, errazagoa da alkohola kontsumitzea.

Egoera larria

Gaur egun hamabi urteko ume askok badakite zer diren sustantzia kaltegarri hauek eta gehienek dastatu dituzte

noizbait. Normala iruditzen al zaizue? Guri ez, gutxienez. Horregatik egin dugu erreportaia hau, pertsona guztiei jakinarazteko drogek, azkenean, zure bizitza suntsitzen dutela, betirako.

Salbuespenak albuespen

Hainbat droga medikuntzan erabili ohi dira, gaixoen mina arintzeko. Morfina, kasu, lasaigarri indartsua da eta gaixotasun askoren tratamenduan erabili ohi da. Era berean, marihuanak minbizia duten gaixoei lagun diezaieke, minaren eragina lasaitzen.

EGILEAK

Ainhoa, Alba, Laura, Naikari, Sandra, Denis, Juanma, Naomi (DBH4)



Iosune Marin Inmakuladako ikasle ohia da. Txiki txikitatik ibili izan da musika munduan (eskolako abesbatzan, gitarra eta perkusioa jaialdietan joaz...) eta bagenekien, hain ahots polita izanda honaino iritsiko zela.

Horregatik, tartetxo hau aprobeztatu nahi dugu bera zoriontzeko, aurtengo kantu txapelketan irabazlea izan baita.

INMAKULADA IKASTETXEKO IKASLE ETA IRAKASLE
GUZTIEN PARTETIK,
MILA KILO ZORION BIHOTZ BIHOTZEZ!!

Ikasleen Txokoa - 43 zk. INMAKULADA IKASTETXEA

EGILEAK :

Ainhoa
Alba
Dani
Denis
Iker
Juanma
Laura
Naikari
Naomi eta
Sandra.



2009-2010 lankidetzak dirulaguntzak - Garapen bidean dauden herrialdeetan egiteko proiektuei

Bi urtetan 225.000 euro emango dizkie Hernaniko Udalak ONGei

Gobernu Batzordeak aho batez onartu zituen asteartean, Hernanik ONGei emango dizkien dirulaguntzak; bi urtetan: 2009-2010. Guztira 225.000 euro emango ditu Hernanik, 18 proiektutarako.

HERNANIKO Udalak diruz laguntzen ditu urtero, zenbait proiektu, munduko herri behartsuetan egingo direnak. Garatzeko bidean dauden herriak dira denak, gehienak hegoameriketakoak. GKE edo ONGei emango zaie dirulaguntza, beraiek baitira proiektu horiek egiteko arduradunak. Aurkeztu diren proposamen guztietan, interesgarriak aukeratu ditu Udalak. Guztira 18 proiektu dira, 2009 eta 2010ean egiteko. Guztira, Hernanik 225.000 euro eman-gu ditu.

Eskolak, harrera zentruak, hezkuntza proiektuak, ganadutegiak...

Ez dago eredu bakar bat, lagunduko dituzten proiektuen artean. Denetako proiektuak daude: Indian, behar gorriean dauden emakumeentzat etxebizitza-zentru bat sortu du Calcuta Ondoan GKE-ONGak.

Guatemalan, babestu egin nahi dituzte bertako zenbait herritar, giza eskubideak aldarrikatzen egiten baitute lana, eta erasoak jasaten baituzte; horiek babesteko proiektua Mugen Gainetik GKE-ONGak aurkeztu du.

Brasilen, lurrik gabekoen mugimenduak formazio politiko sakonago bat izateko proiektua aurkeztu du Mundubat Fundazioak.

Haur txikiei eskolak emateko proiektua Honek GKEak aurkeztu du, Nikaraguarako.

Boliviako indigenek autonomia haundiagoa izan dezaten, ganadutegi txikiak sortzen lagunduko diete Taupadak GKEak.

Txilen, hurakana pasa



Goiko argazkian ageri da, Calcuta Ondoan izeneko GKE-ONGak, Indian aurrera daramakien Ashabari osasun-zentrua.

zenezan sekulako lana egin zuten irrati komunitarioek. Irrati komunitario horiek berreraikitze proiektua aurkeztu du Pausu Media GKEak.

Horiek lankidetzak proiektuak dira. Badira, horrez gain, zenbait herrietako egoeraren berri emateko sentsibilizazio proiektuak: Tibeteko egoerari buruzkoak, Boliviako Tipniseko egoerari buruzkoak, Guatemalan bizi duten egoera salatze proiektuak...

● **Hegoamerikako herrialdeetan egiteko proiektuak lagunduko dira batez ere. Asiarako proiektu batzuk ere lagunduko dira.**

Bederatzi herrialde

Guztira, 18 proiektu emango zaie laguntza. Proiektu horiek bederatzi herrialdeetan egingo dira. Gehienak Hegoamerikako herriak dira: Guatemala, El Salvador, Brasil, Nikaragua, Txile, Bolivia, Kolonbia. Besteak aldiz, Asiako herrialdeak dira: India eta Tibet. II

PROIEKTUAK - 2009-2010

Sentsibilizazio proiektuak

Calcuta Ondoan

Emakumeen giza eskubideak India
2.602,07 euro

Taupadak

Tipnis - Apokalipsiaren aurka Bolivia
1.200 euro

Phagma Drölma Arya Tara

Tibet erbestean: herri baten duintasuna - Tibet
1.285 euro

Mundubat Fundazioa

Giza Eskubideak
3.599,33 euro

ONG Pausu Media

Irrati komunitarioak - Txile
1.400 euro

Mugen Gainetik

Giza Eskubideak eta erasoak haien defendatzaileei - Guatemala
4.615,26 euro

3.Adina 3.Mundurako

Hernaniko bolondresak Guatemalan
659 euro

Bakerako Lankidetzak Batzarra

Emakumeen egoera - El Salvador
800 euro

Honek

Hernanin egindako ekitaldiak
2.609,45 euro

ELAN Euskadi

Lekuz aldatzen ari diren emakumeen egoera - Kolonbia
800 euro

Lankidetzak Proiektuak

Calcuta Ondoan

Emakumeentzako Zentroa - India
45.198,54 euro

Mugen Gainetik

Giza eskubideen defentsa babestea Guatemala
37.699,91 euro

Bakerako Lankidetzak Batzarra

Bizi baldintzak hobetzea El Salvador
12.000 euro

3.Adina 3.Mundurako

Gazteek ikasten jarraitzea lagundu Guatemala
33.113 euro

Mundubat Fundazioa

Gizarte Mugimenduan Politikak hobetu - Brasil
20.090 euro

ONG Pausu Media

Irrati komunitarioak berriz sortu Txile
5.000 euro

Honek

Haur eskolak ematea - Nikaragua
26.397,58 euro

Taupadak

Indigenen autonomia indartzeko ganadutegia - Bolivia
26.164,47 euro

GUZTIRA 2009-2010

225.000 euro

GOBERNU BATZORDEA ASTEARTEAN

Galarretako obrak berehala martxan izan litezke

ONGei emango zaizkien dirulaguntzak onartu zituen astearteko Gobernu Batzordeak, baina horrez gain beste 10 puntu ere onartu ziren. Besteak beste, Orona, S.Coop enpresari baimena eman zitzaion, Galarreta frontoian aparkalekua eraikitzen hasteko. Galarretan egingo den Parke Teknologikoari lotuta dago obra hori. Parke Teknologikoa egiten denean, lekuz aldatuko da gaur egun hor dagoen aparkalekua, Galarreta frontoiarena. Frontoia bere horretan utziko dute, eta aparkalekua gainekaldean izango du. Lehendabizi egingo den obra hori da, hain zuzen, aparkalekua mugitzea. Epe motzean hasi daitezke lanak.

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● Egumez: **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauetz**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Goizean ateri eutsiko dio gaur, eta eguerditik aurrera euria egin dezake. Mendebalako joko du, ipar-ekialdeko eta giroa hoztu egingo du. Iluntzean, elurra egin dezake 600 metrora. Min.5° / Max.10°
BIHAR Mendi-kaxkoak zurituta argituko du eguna bihar. Elurra 600 metro inguruan izango dugu. Goizean euria, eta arratsan ateri. Iparrak joko du, eta hotz eutsiko dio. Min.3° / Max.9°

ERRAPIA - ARTELAN ERAKUSKETA BITERIN



Argazkian, Errapia taldeko kideak Biterin, erakusketaren irekiera ekitaldian.

Errapia taldea, erakusketan

Lehendabiziko aldiz jarri du Errapia taldeak erakusketa Hernanin. 20 artisten lanak daude ikusgai, mota guztietakoak, bihar arte.

BIHAR arte dago erakusketa Biterin. Errapia Arte Taldekoek jarri dute. 20 artista guztira; bakoitzak bere artelanak. Ez da erakusketa ohizkoa, batera ikusi daitezkeelako moeta guztietako artelanak: marrazki, argazki, eskultura, diseinu... denetatik dago.

Errapiako 18 artista, gehi 2 Aitor Ruiz de Eguinoren eskulturak; Nagore Legarreta eta Nagore Lozaren argazkiak; Gorka Setienen *Alo Alo* lana, marrazkiak moldatuta egindakoa; Ainara Azpiazu *Axpiren* marrazki eta irudiak; Jon Zabaletaren pintura eta irudiak; Arkaitz Larrañagaren serigrafia lanak; Xabier Ormazabalek telarekin egindako lanak, *Pupil bags* marka pertsonal eta guzti;



Denetik dago erakusketan.

Kabukiren diseinu lanak (barbie-ak tendentzia jantzia); Patty Navalsen altzariak; Ziku Armendarizen pitxiak; Joxemi Erredondok egindako zeramikak; Ingeren burni lanak; Pello Goelloren pinturak; Mainer Kallonje eta Patxi Monrealen egur tailak; eta Iker Valleren pintura eta eskulturak. Gonbidatuta lanak ekarri dituztenak: Pelexen egur lanak eta Oscar Galianaren eskultura eta argazkiak.

Errapiako lokalean eginak Errapiaren lokalean aritzen dira artista horietatik gehienak, eta han egindako lanak jarri dituzte erakusketan. Zortzi urte daramazki taldeak funtzionatzen. Aurten, Errapia Festa zuten larunbatean, baina udaberrira atzeratu dute. ||

ARTEA

Victor Goikoetxearen lanak, gaurtik aurrera, Donostiako Aquariumean

Victor Goikoetxea pintoreak erakusketa inauguratuko du gaur, Donostiako Aquariumean. Santurtziko Dorre Etxea barrutik dekoratuko du Goikoetxeak, eta lan horren aurrerapen bat jarriko du Donostian. Inaugurazioa, arratsaldeko 19:00etan izango da, eta bertan izango dira Donostiako, Hernaniko eta Santurtziko udal ordezkariak, besteak beste. Irekia da joan nahi duenarentzat. ||

MUSA - ELKARTE ARTEKO TXAPELKETA

Bengoetxea-Moises bikoteak jokatu du finala, Julio-Bixenteren kontra, Gure Txoko eta Xalaparta elkartekoak

Hernaniko elkarteek urtero jokatzeko mus txapelketa beraien artean, eta aurten Gure Txoko eta Xalaparta elkarteko bikoteak iritsi dira finalera. Bengoetxea eta Moises ariko dira Gure Txoko elkartearen izenean; Julio eta Bixente, Xalpartaren izenean. Gaur jokatu du finala, Xalaparta elkartearen, eta hirugarren eta laugarren postuak ere gaur erabakiko dira. Paco eta Patxi ariko dira, Karobi elkartekoak, Jonkar eta Joseba Txantxangorrikoen kontra. 12 elkartek hartu dute parte, bina bikoterekin. ||

GARIN

Mus Txapelketa eta saskiaren zozketa, bihar

Mus Txapelketa dute Garin tabernan, bihar, ostirala, azaroak 26. Txapelketa azkarra izango da, hasi eta buka egun berean egiten dena, 22:00etatik aurrera. Horrez gain, saskia zozketatzeko eguna ere ostirala da, ONCEko azken hiru zenbakiekin egingo dute. ||

IRAGARKI MERKEAK

Oblatosen lokala-bulegoa (20 m²) alokagai, eta garajea salgai edo alokagai. Deitu: 628 947 235
Volkswagen Polo, 1.4 kotxea salgai. Gasolina. 10 urte. Egoera onean. Gris zilarra kolorekoa. **Prezioa: 2000€.** Deitu: 649 209 609
Loft bat alokagai Hernanin. 600€. Deitu: 652 70 72 15
Pisua alokagai: Antziolan (residentziala), 2 logela, saloi, sukalde-komedorra, komunak (kalefakzioa) eta garaje itxia. Hutsik. 800€ (abala). Deitu: 600 60 97 54
Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi handia, sukalea. Behean soziedadeara eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kotxe). **Prezio negoziagarria eta erretasunak ordainketan.** Deitu: 629 682 827.
Audi TT FSI salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajea. 26.500€.
Deitu: 658 058 330.
Pisu polita salgai Karabelen. 2 logela, dena kanpora, guzti berritua (246.000€). Deitu: 658 712 923.
Pixua salgai erdialdean eta toki lasaiean. 2 gela dauzka eta denak kanpoaldera ematen du. **Prezioa: 32.000.000pzta.** Deitu: 619 813 357
Duplex-a salgai Lizeaga kalean, oso egoera onean, argitsua, 120m², 3 logela, 2 komun, trasteroa. 390.000€
Deitu: 609 823 472
ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antena ere bai...
Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Enara Goikoetxea. Terapia energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tartaroterapia. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)
YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, **prezio bereziki eta pertsonalizatuak.**
"Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila.
Atzietan 2, behe. Tel. 943 55 32 78.
Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

leiholux
LEIHOAK, PERTSIANAK ETA ITXITURAK.
Zure etxeko leihoak berritzeko **DIRU LAGUNTZAK.**
Ez utzi aukera pasatzen !!
www.leiholux.net
943 29 09 09
Pol. Belartza
Gurtzegi, 15 - Pab. A-3
20018 Donostia

TITAN-ETXE
TABERNA
ASTEBURUETAN AFARIK
Larramendi, 15
Tel.: 943 55 00 46

ROYMA
ATEAK, LEIHOAK ETA PERTSIANAK
DISTRIBUIDORE OFIZIAL **FINSTRAL**
“RENOVE” PLANA
desk. % 22-raino !!
GALDETU KONPROMEZURIK GABE
ALMAZENA: Pol. EZIAGO, Pab. 5 / lok. 10 - 20120 HERNANI
ERAKUSKETA: Pº IZTIETA, 5 - ERRENTERIA Tel. 943 100 577